



KOSTUEN EGITURA

Atal honetan gure enpresan ditugun gastuak definitu beharko ditugu. Hasi berritako enpresa txiki bat garenez hasieran kostu handiak izango ditugu baina hauei ahalik eta hobekien aurre egiteko kostua hauek minimizatzen saiatu gara. Kostu hauek minimizatzeko adibidez ondorengo gauza hauek egin ditugu: garaje batean lanean hasi, furgoneta bat alokatu, behar dugun ekipo informatikoa alokatu...



Lehenik eta behin gure kasuan izango ditugun **kostu finkoak** definituko ditugu. Izango dugun kostu bat web gunearen hostinga izanen da hau da, enpresaren webgunea. Kostu hau hilero 5,75€ takoa hilabeteko izanen da. Beste aldetik furgoneta ere kostu finko bat izanen da, hilero hilero ordaindu beharko baitugu. Furgoneta renting bidez hartuko dugu, honen prezioa hilero 367€-takoa izanen da. Alokairua ez dugu ordaindu beharko Peioren garajea hasiko baigara gure proiektua egiten baina bertan gastatutako argi indarra ordaindu beharko



dugu eta hau aurrekoen antzera hilero ordaindu beharko dugu, hau 70€-ko kostua izango da. Beste aldetik, enpresan seguru bat kontratatuko dugu eta hau ere hemen sartuko litzateke. Seguruaren aldetik seguru bat kontratatuko dugu istripuen seguru, hau da, langileak izan dezakeen istripu bat lan egiten ari den bitartean. Istripuen seguru beste aldetik, 800 €-ko kostua izango da urteko.

Kostu finkoekin jarraituz kontuan hartu beharko ditugun kostuak langileen soldatak izanen dira hau da guretzat lan egiten duten pertsoneri ordaindu behar zaie eta hauen soldata kostu finko bat izanen da hauei 800 € brutuan (aparteko pagen hainbanapenarekin) emango zaie hilabetero, kontuan izanik **lanaldi erdian** egingo dutela lan 8 langilek. Beste langileek 1700€ irabaziko dituzte hilean kontuan hartuta hauek lanaldi osoan egingo dutela lan. Soldata hauekin ziurtatzen dugu hitzarmen kolektiboan adostutakoa betetzen dugu. Honekin batera gizarte segurantzari langile bakoitzarengatik diru bat ordaindu beharko diogu, lanaldi erdian ari direnengatik 300€ eta 600€ hileko lanaldi osoan ari direnengatik. Baita ere bigarren eskuko makinak erosiko ditugu gure produktuaren muntaiak egin ahal izateko eta makina bakoitzaren prezioa 1000€-koa da eta 3 makina ditugu gure produktuaren muntaiak egin ahal izateko. Makinariaren erosketa enpresarentzat inbertsio bat denez, Caixa bank banketxeari mailegu bat eskatuko diogu bazkide guztiek eta interesekin ateratzen zaigu 8 urtetan ordaindu behar dugula eta hilabetero 137,33€ hau da, 13.000€ borobilduta bueltatu behar diogu Caixa bank banketxeari bazkide bakoitzak. Makinen kasuan bere amortizazioa izanen dugu beste kostu finko bat bezela eta gure ustez 10 urte inguru iraungo dutenez hileroko 25€-tako amortizazioa izango dugu.



© Can Stock Photo - csp7684664

| KOSTU FINKOAK | Hileroko prezioa |
|--------------------------------|----------------------|
| Webgunearen hostinga | 5,75 € |
| Furgoneta | 367 € |
| Argi indarra | 70 € |
| 8 langileen soldata | 800€(bakoitzarena) |
| 4 langileen soldata | 1700€ (bakoitzarena) |
| 8 langileen gizarte segurantza | 300€(bakoitzarena) |
| 4 langileen gizarte segurantza | 600€(bakoitzarena) |
| Istripuen segurua | 66 € |
| Makinen amortizazioa | 25€ |

Beste alde batetik **kostu aldagarriak** definituko ditugu, hauek salmentaren bolumenaren arabera aldatzen dira, hauek izango dira gure kasuan izango ditugun kostu aldagarriak. Lehenengo izango dugun kostu aldagarria gure pieza egiteko beharrezkoa izango dugun materiala izanen da eta gure produktu bat egiteko behar dugun materialaren kostua 30€

izanen da. Produktuaren garraioa, hau da, bezeroari bere enpresara eramateko 10€-ko gastua suposatzen gaitu estatalean, baina garraio internazional bat bada 40€-ko gastua suposatzen gaitu. Unitate bakoitza paketeetan sartzeak kostu bat suposatzen du eta horretarako kartoia erabiliko dugu eta ez plastikoa, egokiagoa iruditzen baitzaigu ingurumenarentzat eta honen kostu aldagarria unitate bakoitzeko 5€ izanen da.

| Kostu aldakorrak | Unitate bakoitzeko |
|------------------------|--------------------|
| Materiala | 30 € |
| Garraioa | 10 € |
| Garraio internazionala | 40 € |
| Kartoia | 5 € |

Kostu hauek kontuan hartuta ondorengo kalkuluak egin ditugu:

$$Q = kf \div (psu - kau)$$

kf=Kostu finkoak- gure kasuan 18.533,75€

psu=prezio salmenta unitarioa- gure kasuan 120€

kau=kostu aldakor unitarioa- gure kasuan 45€

$$Q = 18533 \div (120 - 55) = 248 \text{ unitate}$$

Garraio internazionalaren kasuan:

$$Q = 18533,75 \div (120 - 85) = 412 \text{ unitate}$$

Gure kasuan beste kostu mota bat hartu dugu kontuan, denoi eragiten digun kostu bat, **kostu soziala**. Honi dagokionez lehen esan bezala plastikoa ez erabiltzen saiatuko gara zeren gure ustez **plastikoa ez da ona ingurumenarentzat**, beraz gure produktua bidaltzeko beste baliabide bat erabiltzen saiatuko gara hala nola kartoia adibidez.



Kalkulatu ditugun kostu guztiak kontuan izan behar da BEZ-arik gabe daudela.